

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2024ko IRAILA · 336 zenbakia



**Momak,
etorkizunari begira**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Ume-kantua

Altuan Arantzazu

(Entzuteko: www.alboka.es)

Altuan Arantzazu
bajuan Oñati,
eder galantan bila
orain, lehen eta beti.

Txoritxo polit hori
norena norena,
norena izango zara?
Ama zedorrena.

Santa Katalinako
dendari kojua
eskian dabilena
zakuan zuluaz.

Zakuan zuluza eta
handitxik hona dauka
kaderan kojua,
Santa Katalinako
dendari kojua.



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturrri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Iñaki Moreno.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco', Patxi
López, Juan Carlos Martín eta Valen-
tin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Emilio José Carral, Estibalitz
González, Mikel Madarieta, Valentín
Mugarza, Iñaki Moreno, Héctor
Petite, Nacho del Río, Nahia Ruiz
Albizuri, Dorleta Vidal eta Xepelar
Dokumentazio Zentroa.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Galder Oneca · Herbehereak

“Herrialde oso irekitzat nituen Herbehereak, baina gauza askok harritu naute”

Galder Oneca ermuarrak hogeita zazpi urte ditu eta hiru urte daramatza Herbehereetan bizitzen, Rotterdamen, hain zuzen ere. Musikaria da, eta bere ikasketekin jarraitzeko joan zer bertara, master bat egiteko, hain zuzen ere.

Erabaki erraza izan zen Ermua utzi eta Herbehereetara joatea?

Hasiera batean ez zen oso erabaki zaila izan. Azken finean musikako ikaskide gehienak atzerrira joan dira ikasten jarraitzeko. Beraz, neurri batean bide arrunta jarraitu dudala esan daiteke.


Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Hasieran herrialde oso irekitzat nituen Herbehereak. Modu batean edo bestean, uste dut hori dela nazioartean izan nahi duten irudia, eta heldu nintzenean hori izan zen izan nuen lehen sentsazioa.

Zerbaitek harritu zai zu?

Bai, gauza askok. Aurreko hauteskundeetako emaitzek, esaterako, harritu ninduten. Ez nuen espero immigrazioaren eragin hain handia duen herri batean eskuin muturreko partidu batek izatea gehiengozko ordezkaritza. Beste alde batetik, izugarria da *mainstream* kulturaren influentzia Rotterdamen, eta horrek ere

"Atentzioa eman zidan *mainstream* kulturak Rotterdamen duen eragina"





atentzioa eman zidan. Zer esanik ez dauka Palestinarekin duten elkartasun falta, poliziaren biolentzia, telebisten manipulazioa eta instituzioen isiltasuna eztabaidak ekiditeko, besteak beste.

Nolakoa da bertako jendea?

Herralde ezberdin askotako pertsonak bizi dira hemen, ohitura eta izaera oso desberdinak dituztenak. Hori dela-eta, zaila egiten zait hemengo jendea deskribatzea. Hala ere, gehienak oso diplomatikoak dira.

Zein da bertako janari tipikoa?

Frijitu asko dituzte janari tipiko gisa, gozoak eta gaziak. "Kroketten" edo "bitterbolen" oso ezagunak dira, eta kroketa mota asko daude, baina ohikoena haragizkoa da. Zopak, arrain frijitua eta arrain ketua ere nonahi topatu daitezke.

Zer egiten duzu egun arrunt batean?

Goiza kontserbatorioan pasatzen dut, ikasten edo

"Goiza kontserbatorioan igarotzen dut, eta arratsaldetan lanera joan behar naiz"

"Nederlanderarekin hobeto moldatzea gustatuko litzaidake, baina harreman gehienak ingelesez egin ditut"



zerbait irakurtzen, eta arratsaldean lan egiten dut. Denbora librea dudanean, musika jotzen dut, musika entzuten dut etxean, edo lagunekin irteten naiz buelta bat ematera eta trago batzuk hartzera.

Zer moduz moldatzen zara nederlanderarekin?

Hobeto moldatzea gustatuko litzaidake, egia esan. Azken finean bai kontserbatorioan eta bai lanean ingelesez hitz egiten dut, ondorioz ez dut izan nederlandera ikasteko aukera askorik. Atsegina izateko beste esamoldeak dakizkit, eta elkarrizketa txikia izan dezaket, baina besterik ez. Hori dela-eta, harreman gehienak ingelesez egin ditut.

Gustura zaude bertan?

Bai, gustura nago, baina Ermura bueltatzeko gogo itzela daukat. Nire asmoa da masterra bukatu eta berehala joatea, baina ikusiko dugu!

“Neure burua da nire indargunerik handiena”

Gorka Barrainkua · Hiru Txikiak Ermua Trail Taldeko mendi korrikalaria



Uztailan burutu zen Ehunmilak ultratrailean parte hartu zuen Gorka Barrainkua (Ermua, 1993) eta, 400 parte-hartzaileraren artean, 9. postuan amaitu zuen. Probak dituen 171 kilometroak irribarrea galdu barik egin zituen, entrenamendu eta prestaketa lan gogorraren ondorio. Aurrera begira, hobetzen jarraitu nahi du, eta prest dago dena emateko are luzeagoak diren ultratrailetan ere.

Testua **DORLETA VIDAL**

Uztailaren bigarren asteburuan egin zen XIII. Ehunmilak ultratraila, eta bederatzigarren postuan heldu zinen helmugara (26:23:44). Espero zenuen hain ondo aritzea?

Ez! Inondik inora! Sinestezina izan zen zelako ondo irten zitzaidan dena!

Ibilbide guztia gozamina izan zen?

Egia esan, oso ondo ibili nintzen, azken 10 kilometroak geratzen zirenera arte: orduan sekulako beherakada nabaritu nuen! Argi neukan momentu batzuetan sufritu behar nuela, eta azken entrenamenduak horretara bideratu nituen, sufritzera. Burua entrenatzeko saioak izan ziren, egoerarik txarrenetan animoari eusten ikasteko. Hala ere, onartu behar dut hooligan talde itzela izan nuela ondoan anoa-gune guztietan, eta ia-ia 20 kilometroro: familia eta lagunak, eta asko eskertzen diet, bestela askoz gogorragoa izango zen aurrera egitea.

Pozik hartuko zenituen...

Bai, eta ez nuen galdu irribarrea une batean ere ez: txistek kontatu nituen, edota *La potra salvaje* abestu. Argi neukan pozik joan behar nintzela, oso pozik, nik nahi nuen ekintza batean parte hartzen ari nintzelako. Gainera, ama ere tartean zegoen, eta ni txarto ikusiz gero, asko arduratzen da! Dena den, ni oso zentzudu-

na naiz, eta ondo egon izan ez banintz, erretiratuko nintzateke.

Beste kirolari batzuk ez dira egoten erretiratzeko prest?

Askotan, hankak ondo izan arren, zure sabela ez dago ondo, korrikalarien ohiko gaitza izaten da. Arriskutsua izan daiteke gorputzean janaria ez sartzea, baina batzuk ez dute etsi nahi izaten.

Sabela entrenatu daiteke?

Bai, nik aurten nutrizionista batekin lan egiten hasi naiz, eta karbohidratoetan oinarritutako dieta egiten dut, nire jarduerara egokitutakoa.

Fisikoari erreparatuta, nola bukatu zenuen lasterketa?

Mina neukan gorputz guztian (bizkarrean hanketan, besoetan...), urradurak..., eta bukatutakoan, tentsio jaitsiera izan nuen. Oinak, aldiz, nahiko ondo nituen, egia esan, nire oinek ez dute larregi sufritzen.

Zenbat denbora behar izaten duzu lasterketa ondoren errekuperatzeko?

Bizpahiru aste. Ezin zara bat-batean geratu, gorputza aktibo egon behar da, baina ariketa suabeak egin behar dituzu, muskuluak askatzeko.

Zenbat lasterketa egiten dituzu denboraldi bakoitzean?

Bospasei inguru, baina denak ez dira hain luzeak. Izan ere, ultratrailak egitea ez da batere ona gorputzerako, muturreraino eramaten duzulako, horregatik beste



Gorka Barrainkua mendian gora Hiru Txikiak trail lasterketan. HECTORPETITE



Barrainkua Hiru Txikiak trail lasterketan. MIKEL MADARIETA

"Nire espezialitatea lasterketa luzeak dira. Diesela bezala: suabe joan eta bide luzea egin"

"Entrenatzaile batekin lan egiten hasia izan da erabakirik onena, eta hobetzeko modurik efizienteena"

lasterketa batzuekin tartekatzen egutegia egiten dugu entrenatzaileak eta biok. Aurten, 20 kilometroko proba bat egin dut otsailean, martxoan 42 kilometroko beste bat, ekainean 60koa eta uztailan Ehunmilak, 171 kilometrokoa.

Eta lasterketa horiei aurre egiteko, zenbat entrenatzen duzu?

Asko. Hasieran, zazpi bat ordu astean eta, lasterketat gerturatu denean, 10-12 ordu pasatzen naiz. Hiru aste lehenago, 15 ordu: traila, bizikleta... Horrez gain, gimnasia joaten naiz astean bi bider, indarra hartzeko eta abdominalak lantzeko.

Zergatik jo zenuen entrenatzaile batengana?

Ultratrailen munduan gabiltzanok akatsak egiten ditugu entrenamenduetan, ondo entrenatzen ari garela pentsatuz, eta gidatuko zaituen baten bat behar duzu

ondoan. Duela bi urte hasi nintzen Mikel Quelle oñatiarrarekin entrenatzen, eta hori izan da hartu dudana erabakirik onena eta hobetzeko modurik efizienteena: berari eskertu behar diot neurri handi batean gaur egun sasoi onean egotea.

Zeintzuk dira zure indargunea eta ahulgunea?

Indargunea burua da, oso alai naiz, eta horrek mesede egiten dit lasterketetan. Hobetu beharrekoa, aldiz, jaitsierak dira, ez naiz oso ondo moldatzen. Igoerak nahiago ditut, nahiz eta gehiago sufritzen den.

Zein leku okupatzen du kirolak zure bizitzan?

Garrantzitsua da, baina ez dut nahi kirolak nire egunerokotasuna baldintzatzea. Lana egitea ere garrantzitsua da, baita aisialdiaz gozatzea ere, eta onartu behar dut azkenaldian denbora gutxi pasatzen dudala lagunekin. Ikasturte honetan hori izango da nire erronketako bat:

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida
T.943176075

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10



Ehunmilak probaren helmugan, senide eta lagun ugari batu zen Gorkari ongi etorria emateko. EMILIO JOSE CARRAL

lagunekin gehiagotan egon. Izan ere, horrek ere pilak kargatzen dizkit, eta hurrengo eguneko entrenamenduetara beste umore batekin joaten naiz.

Zenbat denbora daramazu mendian ibiltzen?

26 urtera arte futbolearen aritu nintzen, baina adin horrekin peronea apurtu nuen eta laga behar izan nuen. Orduan hasi nintzen mendian ibiltzen, baina duela bi urte serio jarri nintzen.

Gogoratzen duzu zure lehen lasterketa?

Hamar kilometroko lasterketa bat egin nuen, eta hurrengo 67 kilometrokoa izan zen: Euskal Herria Mendi Erronka. 15 ordu eman nituen ibilbidea burutzeko eta, azkenengoz egin nuenean, 8:40 minutu eman nituen. Oso gogorra izan arren, asko gustatu zitzaidan.

Hamar kilometrokoa motz geratuko zitzaizun...

Ez pentsa, proba ezberdinak dira. Lasterketa laburretan dena eman behar duzu hasieratik; ultrak, aldiz, lasaiagoak dira. Ni ez naiz oso bizkorra, nahiago dut suabe joan, diesela bezala, eta bide luzea egin.

Mendi lasterketak modan daude...

Bai, oso modan. Ermuan burutzen den Hiru Txikiak ikusi besterik ez dago, berehala bukatzen dira dortsalak! Egun horretan oso giro polita sortzen da herrian, eta ni ere Hiru Txikiak Ermua Trail Taldeko kidea naiz.

Garestia da mendi lasterketetan ibiltzea?

Bai, boom itzelaren ondorioz, dena garestitu da. Garrantzitsuen zapatilak dira, zure pneumatikoak dirako, eta nik denboraldi batean hiruzpalau pare apurtu ditzaket! Motxilak ere oso garestiak dira, eta dortsalak zer esanik ez! 2025eko uztaillean Val d'Aran UTMB lasterketan parte hartuko dut, Piriniotan, eta dortsalak 170 euro balio du. Bertaraino ere joan behar da, han egon... dirutza!

Zein da zure helburua mendian?

Hobetzen jarraitzea eta gozatzea, orain arte bezala. Lasterketa bat irabaztea zoragarria litzateke, baina oso zaila da, esparru hau asko profesionalizatu delako: jendeak ordu asko sartzen ditu eta kalitate handiko lasterketari asko daude. Gainera, atzetik datozen gazteak oso gogor datoz. Bestalde, nire ametsa da Italiako Tor des Géants lasterketan parte hartzea: 330 kilometro ditu, eta 24.000 metroko desnibel positiboa. Zoramena!

Aurten denboraldia bukatutzat eman duzu. Osatu duzu 2025eko egutegia?

Bai: Euskal Herria Mendi Erronka eta Val d'Araneko trailak egingo ditut. Bestalde, Zegama Aizgorriko dortsala ez bazait tokatzen, Cainejo ultratraila egingo dut, Europako Mendietan. Bitartean entrenatzen jarraituko dut, datorren urtera begira oinarri sendoa izateko.



Lanak uztailean hasi ziren eta 14 hilabete iraungo dute.


Martxan daude Goitondoko industrialdea eta Ermuko hodi biltzailea lotzeko lanak

Lan hauei esker, saneamendu-sarea hobetuko da eta Goitondo industrialdeko enpresen ur beltzak Ermuko Okinzuri auzoan dagoen hodi biltzaileraino eramango dira. Handik, Elgoibarko araztegia eramango dira. Lanak uztailean hasi ziren eta 14 hilabeteko iraupena izango dute. Guztira, 3.800.000 euroko aurrekontua du obrak, eta Uraren Euskal Agentziak (URA) finantzatuko ditu % 100ean.

Testua **DORLETA VIDAL**

2015ean Mallabiko Udala Goitondo industrialdean dauden enprekin bildu zen, saneamendu-sisteman egoera txarrari eta poligonoaren beraren urbanizazioari buruz hitz egiteko. Izan ere, garai hartan enpresa guztietako ur zikinak Zabaleta ibaira isurtzen ziren, eta beharrezkotzat jo zen saneamendu-sistema baldintza egokietan jartzea.

Aipatutako enpresek egokitzapen eta konponketa ezberdinak egin behar izan zituzten, eta 2021ean



ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

prozesu hau bukatutzat eman zen.

Lehen fase horri esker, Goitondoko hondakin-urak batzea lortu zen, baina berdin-berdin Zabaleta ibaira isurtzen ziren gero, proiektuaren bigarren fasea gauzatzea falta baitzen. Bigarren fase horri aurtan ekin zaio, uztailean hain zuzen ere, Uraren Euskal Agentziarekin (URA) elkarlanean. Fase horretan, Goitondoko ur zikinak jaso, bideratu eta Ermuko Okinzuri auzoan dagoen kolektorera ino eramango dira, eta handik Elgoibarko araztegeraino.

Obrak aurtengo uztailean hasi dira eta 14 hilabeteko iraupena izango dute. Guztira, 3.800.000 euro inbertituko dira, eta URAk finantzatuko du kopuru hori ehuneko ehunean.



Hambre tabernaren aurrean, hodiak sartzeko indusketa lanak egiten ari dira.

Eragin positiboa ingurumenean

Mallabiko Udalaren esanetan, eremuko saneamendu-azpiegitura nabarmen hobetzeaz gain, obra honek eragin positiboa izango du ingurumenean ere, kutsadura murriztuko da eta Zabaleta ibaiaren babestuko da, ekosistema osasungarriagoa lortzeko.

Uraren Euskal Agentziak jakinarazi duenez, Debarreneneko sa-

neamendurako obra multzo baten jarraipena da hau, eta faseka egiten ari dira. Orain, Mallabitik (Goitondoko poligonoa, zein Mallabiko herrigunea) Ermuko herrigunera doazen hondakin-urak garraiatzeko kolektoreak eraikiko dira. Kolektore horietan, bi horien hondakin-urak jaso eta Eibarreraino bideratuko dira, behar bezala arazteko (bidean Zaldibarko isur-

ketak jasoz), Gipuzkoako Ur Kontsultorioak kudeatzen duen Apraizko araztegerian, Elgoibarren.

Jarduketa horri esker, "Ego erre-kara iristen den karga kutsatzailea murriztu ahal izango da, eta, horrela, hiri-presio handia jasaten duen ibai baten egoera ekologiko ona berreskuratzea ahalbidetuko duten baldintzak sustatuko dira", azaldu dute URAkeko arduradunek.



AL-ANON

Alkoholikoen familia eta senitartekoei laguntzeko elkarte

Ayuda para familiares y amigos de alcohólicos

Bilerak astelehenetan,
18:30etik 20:00etara
Zearkalea 34 (Izarra eraikin zaharrean)
611 055 805





Orbea enpresak ekoizpen- instalazio berriak eraikiko ditu Goitondon

Orbeak zenbait eraikin erosiko ditu Goitondo Industrialdean, eta horri esker bere instalazioak, produkzioa eta langile kopurua handituko ditu datozen urteotan. Prozesu honetan Mallabiko Udalak parte hartu du.

Testua **DORLETA VIDAL**

Mallabiko alkatea den Igor Aguirrek azaldu duenez, Orbea beste herri batera joateko zorian egon

zen 2019an, hazten jarraitzeko leku falta zuelako Goitondo Industrialdean. Orduetik, Mallabiko Udala

enpresarekin elkarlanean arituda, eragin garrantzitsua izan du bide horretan eta laguntza eman du ekoizpen-instalazio berrietan inbertitzea posible izan dadin, Udalaren esanetan.

Orbeak Idesa enpresaren eraikina erosi du, hala nola Idesa aurrean dagoen Hierros Servandoren pabiloi handi bat, eta Focs enpresaren ondoan dagoen lursailaren zati bat, besteak beste. Gainera, 2026a inguruan, Orbearen parean dagoen Hierros Servando enpresaren eraikina erosiko du baita ere.

Gaur egun, Orbeak duen eraikin nagusia Mallabian dago, eta

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer



kooperatibak dituen mila langileetatik, zortzirehun baino gehiagok Mallabiko egoitzan egiten dute lan. Eraikin berriak martxan daudenean, "hemendik lau edo bost urtera —Aguirrereren esanetan—, bi mila langile inguruk egingo dute bertan lan".

375 milioi euroko fakturazioa urtean Orbearen ibilbidea 1840. urtean hasi zen, Eibarren, armen fabrikatzaile gisa, baina urteekin enpresak bere jarduera aldatu zuen, eta gaur

egun txirrindularitza munduko izen handienetako bat da. 1931n bizikleten ekoizpenari ekin zionetik, enpresa hasi eta dibertsifikatu egin da, eta 1975etik egoitza nagusia Mallabian dago.


Urtero, 375 milioi euroko fakturazioa du, eta Mallabiko Udalaren arabera, "hedapena ez da soilik Mallabiko eta inguruko herrietako biztanleentzat enplegu aukera bat. Izan ere, merkataritza jarduera handia erakartzen du, tokiko ekonomia bultzatuz".

Ioritz Gisasolak 5. postua lortu zuen euskal pentatloiko finalean



Arg.: Gorka Rubio / FOKU

Ioritz Gisasola "Zelai IV." kirolari mallabitarrek ezin izan zuen Euskal Pentatloia finalaren txapela eskuratu. Izan ere, Andoni Iruretagoienak, Izeta VI, irabazi zuen irailaren 21ean Azpeitiko zezen plazan burututako finala, eta laugarrenez jantzi zuen txapela. Aiako kirolariak 30:53 minututan burutu zituen egin beharreko proba guztiak, eta minutu bat eta bi segundo hobetu zuen bere markarik onena. Aiarren atletik, kirolari hauek sailkatu ziren: Xabat Olaizola, 31:48; Beñat Telleria, 33:47; Aritz Iraza-bal, 35:20; Ioritz Gisasola, 36:43; eta Xabier Zaldua, 37:28.



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505


Trastelekuak
partikularrentzat




Biltegiak
enpresentzat


Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com

DG
Horacio Decoración
TAPIERIA · ALIZABIAE · OSAGARRIAE



VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com





Lasterketa herrigunean.
Argazkilaria: Nacho del Río.



“Gure abestiek indar handiko mezuak dituzte, eta nahi dugu jendeak horiekin konektatzea”

Momak · Musika taldea



Jon Andoni Moreno ermuarrak sortu berri duen Momak musika taldeak kontzertua eskainiko du urriaren Sean Lobianon, 20:00etan. Berarekin batera Jon Ruiz barakaldarra, Pablo Ferretti madrildarra eta Vincenzo Marinelli venezuelarra egongo dira, Bilboko jam session batean ezagutu eta gero, laukote sendoa osatu baitute. Hurrengo lerrootan, Jon Andoni Morenorekin izandako solasaldia.

Testua **DORLETA VIDAL**

Orain arte Jon Moma bakarlarria izan zara. Zer dela eta erabaki duzu taldean abesten hastea?

Azken boladan talde baten beharra sentitzen nuen, babes bat behar nuen, baina zalantzak nituen, ez nekielako beste musikari batzuek prest egongo ote zirenik sortutako abestiak jotzeko... Denborarekin, eta terapiarekin, nire kantei garrantzia ematen joan naiz eta haietan sinisten hasi naiz. Konturatu naiz niretzako arteak eta, batez ere, musikak sekulako garrantzia duela, eta bide horretatik jarraitzea erabaki dut.

Leku ezberdinetakoak zarete Momak taldeko kide guztiak. Non ezagutu zarete?

Bilbon, Zorrozaurren dagoen Espacio Open zentroan burutzen diren *jam session* saioetan. Saio horietan hainbat musikari biltzen dira, eta elkarrekin jotzen dute, inprobisatuz. Guk ikusi genuen eszenatokian *feeling*-a geneukala, eta hitz egiten hasi ginen, elkar ezagutu, eta proiektua lantzeari ekin genion. Duela urtebete pasatxo izan genuen lehen hartu-eman, eta urte erdi inguru daramagu elkarrekin entseatzeko. Oso pozik nago, beste kideek ere taldea serio hartu dutelako eta ni bezain motibatuta eta gogotsu daudelako. Aldi berean, guztiok gara helduak eta esperientzia daukagu musika munduan: badakigu zer nahi dugun eta zer ez.

Udan Kolonbian izan zara, eta Karibeko Euskal Etxeak antolatutako zenbait kontzertu eman dituzu Jon Moma izenarekin. Esan daiteke Momak taldea Jon Momaren jarraipena dela?

Ez. Bi proiektuak oso lotuta daude, hemen ere abestiak nik idazten ditudalako (nahiz eta azkenak banda



Ezkerretik hasita Vincenzo Marinelli, Jon Ruiz (atzean), Jon Andoni Moreno eta Pablo Ferretti. IÑAKI MORENO

formatuan jotzeko sortu ditudan), eta pisua daukat bandaren baitan. Proiektu pertsonala da neurri handi

batean, baina nahi dut lauron proiektua izatea. Gustatuko litzaidake Jon Moma atzean lagatzea apurka-apurka. Proiektu berria da hau, indarrak eta ideiak guztiz berriak direlako.

Jon Momak kantatzen zituen abestiak eta Momak taldearenak oso ezberdinak dira?

Konposizioa ez da aldatu, baina produkzioa bai, eta horrek esan nahi du aditu batek prozesu artistikoan parte hartzen duela eta gidatzen gaituela, guk nahi dugun estiloa lortzeko. Oso figura garrantzitsua da.

Zein musika estilo jotzen duzue?

Indie, pop, rock... Zaila da etiketa bat jartzea. Abesti bakoitza ezberdina da, eta ez dakit inoiz eroso egongo garen etiketa bakarrarekin. Influentzia pilo bat dauzkagu.

Abestiren bat grabatu duzue dagoeneko?

Bai, hiru grabatu ditugu, eta emaitza oso ona da. Onartu behar dugu kalitatearen aldeko apustua egin dugula, eta horrek inbertsio txiki bat eskatzen du, baina argi daukagu kalitatezko gauzak egin nahi ditugula. Horretarako maila handiko estudioetara jo dugu, produktore esanguratsuekin egin dugu lan...

Urriaren 5ean emango duzue lehen kontzertua Ermuan...

Bai, eta gure asmoa zen kontzertu hau taldeko lehen izatea. 100 lagun inguru sartzen dira Lobianoko aretoan, eta zerbait berezia eskaini nahi genien gertuko pertsonei, *showcase* estiloan: banda aurkeztu, taldearen norabidea azaldu... Uda aurretik lotu genuen kontzertu hau, baina udan Barakaldoko Hiriko Soinuak musika lehiaketan parte hartu genuen, eta finalera heldu gara. Beraz, kontzertua eskaini behar dugu bertan irailaren 28an. Bestalde, urriaren 4an San Mames futbol estadioko Geuria! aretoan joko dugu:



Aguanieve taldearen kontzertuaren hasierako taldea izango gara. Oso pozik gaude!

Zeintzuk dira zuen asmoak hemendik aurrera?

Hemendik gutxira lehen singlea aterako dugu, eta bi-deoklipa grabatzen ari gara, formatu profesionalean baita ere, hori izango baita neurri handi batean gure aurkezpena mundura. Bestalde, gure abestiek oso mezu potenteak dituzte, eta gustatuko litzaiguke jendeak mezu horiekin konektatzea, abestiak ahalik eta gehien zabaltzea, talde bezala hasi eta kontzertuetan gero eta erosoago egon. Izan ere, uste dut musikaren munduan urrutiago heltzeko, oso ona izan behar zarela zuzenean, eta hori lantzen saiatuko gara.



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.



www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI

943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com



LA FORJA KAFETEGIA



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



Auto elektrikoentzako kargalekua Azitaingo industrialdean (Eibar). DKT

AUTO ELEKTRIKOEN SALMENTA GORANTZ DOA MUNDUAN

Auto elektrikoak bogan

Iraunkortasunaz eta karbono-isuriaren murrizketaz gero eta kontzienteagoa da gizartea eta ibilgailu elektrikoak etorkizuneko mugikortasunerako irtenbidetzat nabarmentzen ari da. Nazioarteko Energia Agentziak (IEA) emandako datuen arabera, ia hamalau milioi auto elektriko saldu ziren munduan, aurreko urtean baino % 35 gehiago. IEAren kalkuluen arabera, 2030erako merkatu gehienetan prezio baliokideak izango dituzte errekuntzako autoak eta elektrikoak, eta 2035erako hiru autotik bi elektrikoak izango dira.

Zenbat auto elektriko mota daude merkatuan?

Gaur egun, darabilten teknologia-aren arabera, hiru ibilgailu elektriko mota nagusi daude merkatuan: ibilgailu elektriko purua/bateriaduna, autonomia hedatuko

2035erako hiru autotik bi elektrikoak izango dira, IEA-ren arabera

ibilgailu elektrikoak (errekuntza motor txiki bat du bateria kargatzeko), eta ibilgailu hibrido entxufagarria (propulsio elektriko eta konbentzionala uztartzen ditu).

Zenbat balio dute?

Espainiar estatuan, lau plaza-ko auto elektrikorik merkeenak 18.000 euro ingurutan saltzen dira; batezbestekoa, berriz, 34.000 euroren bueltakoa da. Baina auto elektrikoaren kostua kalkulatzeko garaian, beste hainbat faktore ere hartu behar dira aintzat, hala nola, erregaia eta mantentze-lanak. Erregaiari dagokionez, auto elektrikoaren 100 km-ko kostua 2-3 euro ingurukoa da eta gasolinazkoarena, berriz, 9-12 euro bitartekoa. Mantentze-lanen kostua ere dezente txikiagoa da auto elektrikoaren kasuan, gasolinazkoa, diesela edo hibridoa baino, % 29, % 21 eta % 25, hurrenez hurren. Hortaz, hasierako erosketaren gainkostua 6-7 urtean amortizatu daiteke.

Zer nolako autonomia du?

Modeloa eta bateriaren arabera da. Halaber, modelo berriek karga bakoitzeko 250-500 kilometro bitarteko autonomia izan ohi dute.

Zenbat kargaleku daude Debabarrenean?

Auto elektrikoentzako hamabi kargaleku daude bailaran, besteak beste, Eibarren Azitaingo gasolineran eta industrialdean, edo Mercadona, Eroski eta Aldi supermerkatuetakoak, edota Repsol gasolineran eta Mercadona Elgoibarren.

Kargaleku publikoak, pribatuak eta komunitarioak

Kargalekuak erabilera publiko-ko lekuetan daude eta edozeinek erabil ditzake baina, oro har, auto elektrikoak gauez eta etxean kargatzen dira. Ibilgailuen kargen % 90-95 garaje partikular edo komunitarioetan egiten da, ahal dela, gauez, elektrizitatearen kostua txikiagoa delako.

Karga-puntu pribatuen kasuan, instalazioa 750-1.000 euro bitartean kosta liteke. Kargaleku komunitarioa denean, berriz, kasuistika askotarikoa da eta aukeratu den instalazio motaren arabera aldatzen da kostua. Debegeak ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioaren inguruko eskuliburua diseinatu zuen. Gida honen helburua da auzo-komunitateetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioen prozesuari eta inplikazio nagusiei buruzko informazioa ematea, horiek aplikatzeko egin beharreko urratsak zehaztuz.

Dirulaguntzak

2021ean Espainiako Gobernuak Moves III plana onartu zuen auto elektrikoaren erosketak eta kargagailuen instalazioak diruz laguntzeko eta deialdia 2024ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean. Kontsultatu laguntzak Energiaren Euskal Erakundearen webgunean.

**Debabarrean
hamabi kargaleku
elektriko daude:
zortzi Eibarren eta lau
Elgoibarren**



Aitziber Cortazar, Lorea Esnal eta Maria Otamendi. DKT

Energia Bulegoa debabarrendarren zerbitzura

Duela hiru urtetik martxan da Debabarreneko Energia Bulego Birtuala, 2030 Agendaren baitan, bailaran energia berriztagarrien erabilera indartzeko helburuz. Bertan, aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen diete herritarrei nahiz enpresei, debalde.

Energia berriztagarrien arloan dauden aukerak (fotoboltaikoa, termikoa, geotermia, aerotermia, biomasa...), teilatua birgaitzeko moduak edo berogailu sistemak, kontsumoa eta fakturak optimizatzeko bideak eta energiari lotutako beste hamaika konturen berri ematen dute. 2021etik 70 kontsulta baino gehiago erantzun dituzte eta 100 herritar eta enpresa baino gehiagori lagundu diete instalazioak bideratzen edo kontsumoa murrizten.


Online eta presentzialki

Bulegoak goizero eskaintzen du zerbitzua, online, telefono bidez edota presentzialki. Informazio gehiago Debegearen webgunean edo 943 82 01 10 zenbakira deituta.



Herritarren laguntzarekin burutuko da aurtengo San Martin azoka

San Martin azoka azaroaren 9an izango da, eta egun horretan, ohi bezala, euskal giroak beteko ditu herriko kaleak. Jaiaren antolaketa, aldiz, ez da ohikoa izango, zeren eta Euskal Birusa Elkarte Kulturalak laguntza eskatu behar izan die bazkideei eta laguntzaileei, egin beharreko zereginak aurrera ateratzeko. Antolaketa lanetan parte hartu nahi dutenak Lobianon burutuko den bilerara hurbildu ahal izango dira (irailaren 30ean, astelehena, 18:30ean).




Kasturtea hasi da, eta horrekin batera ekin dio Euskal Birusak ohiko ekintzen antolaketari. Taldea gogotsu dagoen arren, haren inguruan biltzen den talde eragilea ahulduta dago, eta gero eta gehiago kostatzen zaio ekintzak aurrera eramatea. Izan ere, Elkarteak jakinarazi duenaren arabera, San Martin azoka bera kolokan egon da aurtan.

Euskal Birusak egoera horren berri eman die bazkideei gutun edota mezu elektronikoaren bitartez. Aldi berean, hemendik aurrera taldeak nola jardungo duen jakinarazi die, eta azokaren antolaketan parte hartzeko gonbitea helarazi ere.

Hain zuzen ere, San Martin batzordea osatuko da datozen egunotan, eta hark hartuko ditu bere gain azokarekin lotutako zereginetako batzuk, Euskal Birusarekin koordinatuta. Batzorde horretan nahi duten bazkideek, kolaboratzaileek eta herritarrek parte hartu ahal izango dute.

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



www.quetzalmoda.com
Zubiaturre, 2 48260 ERMUA | 943170065

Arduradunek azaldu dutenez, bali teke aurrerago elkartearen beste egitasmoren bat antolatzeko batzorde propioaren bide honetatik jarraitzea. Momentuz, aldiz, azaroan burutuko den ekintza honetara mugatuko da.

Nortzuk osatuko dute San Martin azokaren Batzordea?

Euskal Birusaren zenbait bazkide izango dira bertan, eta talde irekia izango da.

Zenbatean behin bilduko da Batzordea?

San Martin azoka heldu bitartean hiruzpalau bilera egingo dira, lanegunetan, iluntzean. Batzordeko kideek finkatuko dute ordua.

Zein izango da Batzordearen lana?

Euskal Biruseko koordinatzailearekin eta talde eragilearekin elkarlanean, atal ezberdinetan egin beharreko lanak identifikatu eta aurrera eramatea izango da Batzorde honen helburua. Lana erabat boluntarioa



izango da, bakoitzaren prestutasunaren arabera.

Noiz izango da Batzordearen lehen bilera?

Irailaren 30ean, astelehena, 18:30ean, Lobiano Kulturgunean. Asko jota, ordu eta erdi iraungo du.

Zalantzarik izanez gero, talde eragileko kideekin jar daiteke harremanetan: 688 63 28 74 telefonoan, euskalbirusa@gmail.com helbidetan, edota elkartearen egoitzan bertan (Erdikokale zeharbidea, 2 zenbakia, 1. pisua).

Elkartek ilusio handiarekin ekin dio bide honi, eta herritarrekin batera euskara Ermuan zabaltzen jarraitzeko nahia adierazi du.

San Martin azoka ez delako magia, herrilana da!

San Martin Batzordearen lehen bilera irailaren 30ean burutuko da, 18:30ean, Lobiano Kulturgunean

Ferreteria ANBOTO
Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Bitsi-denda Tailor propioa Erloji-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Asteegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 943030527

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

BERTAKO OKELAK

ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORRA ODOLOSTE ETA KROKETAK

PROBLEKU 3 - 943 170565
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK

Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 - Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95



Urriaren 25ean burutuko da San Martin Kulturaleko Bertso Saioa



Euskal Birusa Elkarte Kulturalak antolatzen duen Bertso Saioa urriaren 25ean burutuko da, ostirala. Oholtza gainean egongo dira: Uxue Alberdi, Miren Artetxe, Aner Peritz, Unai Iturriaga, Nerea Ibarzabal eta Beñat Gaztelumendi. Saioa 20:30ean hasiko da, Ermua Antzokian.



Sarrerak salgai daude dagoeneko, eta hamar eurotan eskuratu daitezke bide hauetako edozein erabilita:

- Lobiano Kulturagunean (Goienkale 10), astelehenetik ostiralera 9:00etatik 21:00etara.

- tickets.kutxabank.es webgunean.
- Kutxabaneko orotariko kutxazainetan.

Ekitaldi hau antolatzeko, Euskal Birusak Ermuko Udalaren laguntza jaso du.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera


Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Ekintzaileentzako dirulaguntzak banatuko ditu Lanbidek

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzaileei laguntzeko dirulaguntza deialdia abian jarri du, eta Debegesa Garapen Agentziak jakinarazi duenez, herritarrek Debegesaren bitartez egin ahal izango dute eskaera, urriaren 11 baino lehen.

Dirulaguntzaren inguruko zalantzak argitzeko, Debegesak saio informatiboa antolatu du irailaren 26an, 10:00etan Debegesan bertan, eta ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea. "Dirulaguntza hauek bideratzeaz gainera —azaldu dute erakundeko arduradunek—, aholkularitza



eta beharrezko duten laguntza eskainiko diegu ekintzaileei". Dirulaguntzen zenbatekoari dagokionez, negozio ideia lantzeko laguntza, gehienez ere, 1.000 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko. Enpresa-proiektu berriak martxan jartzeko, berriz, gehienez ere 1.500 euroko laguntza emango zaio sustatzaile bakoitzari. Zenbateko hauek % 15 handituko dira baldin eta sustatzailea 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada, eta beste % 15 emakumezkoa bada. Laguntza eskatzeko interesa duten herritarrek Debegesaren bulegoetan aurkeztu behar dute dokumentazioa. Informazio gehiago jasotzeko, www.debegesa.eus webgunera jo daiteke, 943 82 01 10 telefonora deitu edota ekintzaile@debegesa.eus epostara idatzi.

Irailaren 30ean hasiko da Egunean Behin, eta Euskal Birusak sari ezberdinak banatuko ditu

Irailaren 30ean abiatuko da Egunean Behin jokoaren 16. edizioa eta, denboraldi honetan ere, Euskal Birusak sari ezberdinak banatuko ditu egunero parte hartzen duten herritarren artean. Euskal Birusaren taldera batzeko, Egunean Behin aplikazioa deskargatu beharko da mugikorrean, Euskal Birusa taldea bilatu eta 3A8ECB gakoa idatzi. Astea bukatutakoan, 30 euroko erosketa txekoa zozkatuko da aste horretako parte-hartzaileen artean, Merkatarien Elkarteko dendetan gastatu beharko dena. Lehen sailkatuak, gainera, txartel bat jasoko du denboraldiaren bukaeran egingo den zozketan parte hartzeko: asteburu pasa landetxe batean, hain zuzen ere. Eibarko CodeSyntax enpresak sortu zuen Egunean Behin 2019an; ordutik, 35 milioi partida baino gehiago jokatu dira.

BAR
JUBILETXE
ERMUA

Hemen eskatu!

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER


C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

Otro Plan

como en casa


Erreserbak: 644 340 754

Teresa Murga eraikina



Lobiano jauregiak jabetzarena zan Huerta de Lomiñokua orubiaren salerosketa 1944ko iraillian siñatu zan, metro karratu bakoitzeko 12 pezeta ordainduz 12.000ren truk. Jabian izena jartzia erabagi zeban udalbatzak. Hurrengo urtietan Hezkuntza Ministeritzak diruz lagundu zeban eskolak eitzeko proiektua, baiña nahikua ez eta Udalak kredito bat eskatu bihar izan zeban. Aurre eitzeko Ardo, Edari, Okela eta Uren zergekin batutakuak erabili ziran eskatutakua amortizatzeke. Geruago ahal zeben herritarrak diru kopuru bat aurteratu zotsen Udalari, apurka-apurka bueltatzekua. Ezin likidau baiña eta Udalan izenian herriko zortzi enpresa kargotu ziran kredituan zati batekin. Tartian baiña Ministeritzak eraikitze proiektua atzera bota zeban, errekreo

guniak ez zekelako nahibeste leku neska eta mutillak sakabanauta olgatzeko. Eta ondiñok proiektua hankaz gora jarriko zeban beste errealidade baten aurrian topauko zan herrixa: zeuzan 348 eskolaumiak ez ziran bi solairuko eraikin haretan kabitzen eta hirugarren bat altxatu biharko zan. Azkenian, 1958ko uztaillian inaugurau zan. Eskola izatiari laga zotsanetik, hezkuntza eta kulturiki lotutako jarduerak hartu ditxu, eta gaur egun goitxik eta behera Udal Liburutegixa da.



 ORBE TOLDOS Y PERSIANAS	
Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eitxo-sareak	
Tailerra: Zearreko Buelta 2 943 17 66 34 - 630 01 13 41 48260 Ermua (Bizkaia)	Erakusketa: Karabixa 1 48260 Ermua (Bizkaia) 943 17 98 60 persianasorbe@gmail.com

mari asun LORADENDA	
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379	



JUAN CARLOS MARTIN

Osasun mentala, noizko?

Bilboko jaietan txosna bat ikusi nuen esaldi hau idatzita zeukana: "Osasun mentala". Ez dakit ze txosna zen, baina zoragarria iruditu zitzaidan jai giroan egonik pertsona talde batek gogoan eramatea osasunaren zati hain garrantzitsua. Zeren eta, leloak esaten duen bezala, ez dago osasunik ez badago osasun mentala.

Hala ere, Osasun Mentalaz hitz egiten dugunean, zer kolektibori buruz ari gara? Normalean, politika publikoak kolektibo jakin batzuegan eragitera bideratzen dira, tartean gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua duten pertsonengan, nahasmendu mental larria dutenengan... eta 2023-2028ko estrategian, Eusko Jaurlaritzak lehenesten du elikadura-portaeraren nahasmendua duten nerabeengan eragitea, haurren eta gazteen osasun mentala, eta osasunerako kaltegarriak diren substantzien erabileratik eratorritako nahasmenduak.

Estrategia hori beharrezkoa da, baina gizartean badago oso larria den arazoa ere, landu beharrekoa dena, eta ez dagoena oinarritzko nahasmendu mentala izatearekin lotuta. Hala, aztertu beharko lirarteke herritarren osasun mentala pixkanaka-pixkanaka okerrera joatearen sorburuak diren gizarte determinanteak. Izan ere, herritarrak saiatzzen dira haien arazoak "konpontzen" (tartean, etxebizitza eskasia, soldata eskasak eta lana eta familia bateragarri egiteko zailtasunak) farmakoekin, eta muturreko kasuetan, bere buruaz beste eginez. Bai, 2023an 141 lagunek egin zuten bere buruaz beste Euskal Autonomia Erkidegoan.

Horregatik, beharrezkoa da Osasun Mentalaren Prebentziorako Plan Integrala, bizitza kalitatea kentzen duten arrazoi biologikoak zein gizarte determinanteak kontuan hartuko dituenak eta, horiek lantzean, botikan oinarritutako terapiak erabiltzea saihestuko lukeena.

Hain zuzen ere, profesional ezak baztertu egiten dituenek terapia ez-farmakologikoak kasu askotan (terapia psikologikoa, kasurako), giza baliabide eta baliabide materialetan inbertitzearen aldeko apustua egin beharko litzateke, paziente bakoitzaren beharretara egokitutako arreta eskaini ahal izateko. Eta horrela, ez litzateke egongo txosna batean aldarrikatze beharrik.

"Normalean, politika publikoak kolektibo batzuegan eragitera bideratzen dira"

NORA GASTÓN IZAGUIRRE

Ermuan jaioa duela 42 urte. Bera baino nagusiagoa den ahizpa bat dauka. Hamasei urterekin ezagutu zuen bikotekidea eta bi alaba ditu. Haur Hezkuntzako irakaslea da, eta 20 urte daramatza eskola bateko jantokian lanean. Taldean abesten gozatzen du, eta herriko abesbatza ezberdinetako kidea izan da.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Haurtzaroan pentsatzean, uniforme da burura dartzekidan lehen gauza, Centro Cultural ikastetxean ikasi nuelako. Horrez gain, denbora asko pasatzen nuen plazan, gomarekin jolasten gehienetan: alturik, gurutzatuta...

Herriko dantza taldeetan ibilitakoa zara...

Bai, txikitik Txindurri Dantza Taldean dantzatzen nuen, baina utzi nuen Institutuan hasi nintzenean. Handik urte gutxira Felix bikotekidea ezagutu nuen. Berak Gure Ametsan egiten zuen dantza, eta jendea behar zutenez, talde horretan eman nuen izena. Begirale ere aritu nintzen gero.

Oso gazte ezagutu zenuen bikotekidea?

Bai, hamasei urte nituenean.

Eta nola gogoratzen duzu gaztaroa?

Ermuko Institutuan ikasi nuen, eta nirea izan zen B ereduko lehen taldea. Gainera, Musika Eskolan eta Koroan ibiltzen nintzen.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Txiki-txikitatik "andereño" izan nahi nuen.

Eta zer ikasi zenuen?

Haur Hezkuntza ikasi nuen Bilbon, baina ez dut ia lanik egin esparru horretan.

Non egiten duzu lan?

Eskola bateko jantokian egiten dut lan 2006tik.

Zer da lan horretaz gehien estimatzen duzuna?

Umeekin egotea: haiekin denbora igaro, jolas berriak erakutsi... Eta uste dut haiek ere gustura daudela nirekin.

Eta gutxien?

Antolatzeko momentuan langileen artean sortzen diren eztabaidak. Nahiko konformista naiz eta egoera guztietara egokitzen naiz, baina eztabaidak daudenean deseroso nago.

Hogei urteotan, nola aldatu da jantokietako jarduna?

Alde batetik, janari osasuntsuagoa dago orain, frijitu gutxiagorekin, eta pureen ordeztu, janaria osorik jartzen da, umeak jaten ikas dezaten. Bestalde, egungo joera da umeak jaten ez behartzea, nahi duten kopurua ba-



karririk jaten dute. Hala ere, guk elikagai guztiak probatzera animatzen ditugu.

Noiz hasi zinen Musika Eskolan?

8. mailan hasi nintzen. Koroan abestu nahi nuen, baina horretarako solfeo apur bat ikasi behar zen, beraz... Alboka Abesbatzan hasi nintzen eta azken 9 urteak Pispillun eman ditut. Guztira 25 urte inguru daramatzat abesten. Askok gustatzen zait taldean abestea, niretzat terapia moduko bat da: nire momentua da, sozializatzeko aukera ematen dit, eguneko ardurak ahazten laguntzen dit...

Beste saltsaren batean zabilta egun?

Alaben ikastetxeko batzorde ezberdinetan nago, katekesiko irakaslea eta eskubaloi taldeko ordezkaria naiz, noizean noiz Emakumeen Asanbladan parte hartzen dut...

Zer lotura daukazu euskararekin?

Bereduan ikasi nuen arren, nire egunerokotasunean gaztelania erabiltzen nuen, etxean eta lagunekin, esaterako. Horrez gain, Institutuko azken bi urteak gaztelaniaz egin behar izan nituen derrigorrez, eta horrek bultzatuta, A ereduan egin nituen geroko ikasketak ere. Hanka sartzea izan zen, Euskaltegian eman behar izan nuelako gero izena.

Kuadrillan euskaraz hitz egiten duzue?

Bai, duela urte batzuk aldatu ginen gaztelaniatik euskarara, eta saiitzen gara herrian euskaraz antolatzen diren ekintzetan parte hartzen. Ez dugu derrigortuta egiten, berez ateratzen zaigun gauza da.

Gustatzen zaizu bidaiatzea?

Bai, baina ez dut asko bidaiatu. Nonbaitera joatekotan, Parisera joango nintzateke. Koroarekin Euro Disneyra joan ginen aspaldi, baina ez genuen Paris ikusi: Eiffel dorrearen azpian ordubete eman genuen eta listo! Pena hori daukat!

Irakurtzeko ohitura duzu?

Saiatzen naiz, baina udan bakarrik irakurtzen dut, eta ez uda guztietan. Aurten *Feminismo para torpes* izan dut esku artean, baina nahiko astuna egin zait. Henar Álvarezen *Ansia*, aldiz, asko gustatu zitzaidan.

Zinezalea zara?

Bai, lehen larunbatero joaten nintzen. Orain, umeen pelikulak ikusten ditut...

Telebistan...

Netflix ikusten dut, telesailak batez ere: kapitulu bat bestearen atzetik! Orain, *Los anillos del poder* ikus-

ten ari naiz.

Jatun ona zara?

Bai, denetik jaten dut, beharko nuena baino gehiago! Dilistak dira nire platerrik gustukoena.

Zure bertute eta akats bana?

Eskuzabala naiz, gehiegi akaso, eta larregi inplikatzeko naiz gauza guztietan. Urteekin konturatu naiz bertutea eman dezakeen arren, akatsa dela.

Eguneko zure momentua?

Gauean, etxeko guztiak ohera joaten direnean, telesail bat ikustea.

Zerk haserretzen zaitu?

Oso lasaia naiz. Etxean haserretzen naiz noizean behin, baina ez da ohikoa, eta horrelakoetan momentuko kontua izaten da, erraz pasatzen zait.

Zerk eragiten dizu barrea?

Gauza askok, edozerk.

Puntuala zara?

Bai, eta nire onetik ateratzen nau puntualtasun ezak.

Bizitzako egunik zoriontsuena?

Alabak jaio zirenean.

Zerbait egin ez izanaren pena daukazu?

Ez.

Nahiago duzu hitz egin ala entzun?

Entzun. Kuadrillan beti esaten didate gehiago hitz egin behar dudala, baina ni gustura nago entzuten.

Zer eskatzen diozu lagun bati?

Behar dudanean, ondoan egotea.

Zein albiste irakurri nahiko zenuke?

Gerrak bukatu direla, ez dagoela gudarik.

Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Bai. Senarra informatikoa da eta niri ere beti gustatu izan zait: mugikorra nire besoaren zatia da! Eskuan daukat beti.

Erabakiak hartzea kostatzen zaizu?

Ez, nahiko erraz hartzen ditut. Ez dizkiet gauzei buelta larregi ematen.

Bidaia bat, etorkizunera edo iraganera?

Etorkizunera. Pasatu dena, pasatu da, eta listo!

Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?

Ez, gustura nago egindakoarekin.

"Abestea terapia da niretzat: eguneko ardurak ahaztu eta sozializatzeko aukera ematen dit"

"Duela urte batzuk gaztelaniatik euskarara aldatzea erabaki genuen kuadrillakook"



- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxelo	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardino	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarineta	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
abokamusikaeskola@hotmail.com



KRABI
Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

1965

E R M U A

Lagun artean ezkontza batera joan ziren Iruñara eta bertan erretratatu ziren, ezkerretik eskumara, Luis Mari Izagirre, emaztegaiaren senide bat, Berta Yarza, Jose Vicente Alberdi eta Jesus Mari Telleria.



1979

M A L L A B I A



Argazki hau Estakuan aterata dago, 1979. urte inguruan. Pepin izena zuen astoarekin ageri dira ume batzuk. Estakuakoen esanetan, Pepin astoak baserrira belarra ekartzen egiten zuen lan gehiena, eta argazkian bertan ikusten da asto-sillak jarrita dauzkala. Aurretik astoek beste zeregin batzuk izan zituzten, adibidez esnea Ermura eraman, baina Pepinen garaian lan horiek kotxearekin egiten ziren. Pepinekin batera agertzen dira argazkian Tere Uriarte, Iratxe Uriarte, Jon Arrillaga, Aitzol Uriarte eta Eli Txurruka.

IRAGARKI LABURRAK

Neska eskaintzen da etxeak edo peorak garbitzeko, eta pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Esperientziarekin. © 686 52 0473, Maria.

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsalde. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. © 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. © 685 584 587


Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat © 688 683 655.



Irailaren 5ean
Zorionak **Unax!!** 6 urte!!
Musu haundi bat familia guztiaren partez.



Urriaren 9an
Zorionak **Nahia**, bihotza!
7 urte! Ze arin pasatu diren! Musu handi bat Jose eta Marce aitite-amamaren partez. Asko maite zaitugu.



Abuztuaren 31n
Zorionak **Lier**, espero dugu ondo pasatu izana zure 9. urtebetetzean, aitite eta amaren partez.



Urriaren 3an
Zorionak **Gexan!**
Jadanik 2 urte! Segi orain arte bezain jator eta irribartsu! Matte zaittugu!



Irailaren 25ean
Zorionak **Ainere!**
Irailaren 25ean 11 urte haundi bete dituzu. Segi beti bezain alai, maitxia! Patxo haundi bat familia guztiaren partez.



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

zuzenbidekontuak@gmail.com

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com

ileapaindegia
Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474

688819336

ZINEA

Hilaren Setik 7ra:
"Romper el círculo" + "El 47"
Hilaren 12tik 19ra:
"Bitelchus Bitelchus" +
"Puntos suspensivos"
Hilaren 19tik 21era:
"Soy Nevenka" +
"Justicia artificial"
Hilaren 26tik 28ra:
"Megalópolis" +
"La virgen roja"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 3:
"Dogman"
Hilak 10:
"Casa en llamas"
Hilak 17:
"Antes era divertido"
Hilak 24:
"Tiger stripes"
Hilak 31:
"Crossing"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

HAURRENTZAKO ZINEA

Hilak 6:
"10 vidas"
Hilak 13:
"Buffalo Kids" (euskaraz)
Hilak 20:
"Transformes One"

Hilak 27:
"Zack y Wowo"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 4:
Kontzertua: Andrés Suárez (akustikoan). 20:30ean. Antzokian. Sarrera: 15 €
Hilak 5:
Kontzertua: Momak. 20:00etan. Lobiano Kulturgunean. Sarrera: 10 €
Hilak 19:
Gala solidarioa. Musika eta dantza: hainbat ikuskizun. 16:00etan. Ermua Antzokian. Dohaina: 5 €
Hilak 19:
Bues kontzertua: Fernando Beiztegui & The Hammond Lovers. 20:00etan. Lobiano Kulturgunean. Sarrera: 10 €
Hilak 26:
Kontzertua: Pispillu Abesbatza + Debabarrena orfeoia + Trío Medianoche. 16:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.
Hilak 26:
Kontzertua: Portugaleteko Santa Maria abesbatza + Pispillu abesbatza. 20:00etan. Santiago elizan. Sarrera dohainik.

ANTZERKIA

Hilak 1 1:
"Se alquila", Andoni Ferreño eta Agustín Bravorekin. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12 €

HAURRENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 5:
Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Udal liburutegian.
Hilak 26:
Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Udal liburutegian.

ERAKUSKETA

Hilaren 7tik 20ra:
Mikologiari buruzko argazki lehiaketera aurkeztutako lanak. Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilaren 6ra arte:
Gaztela eta Leoneko Zentroaren kultur astea: hainbat ekitaldi. Orbe Kardinalaren plazan eta Patakonia zeharbidean.
Hilaren 4tik 6ra:
Erdi Aroko azkoka. Goizez eta arratsaldez. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilaren 14tik 20ra:
Andaluziako Zentroaren kultur astea: hainbat ekitaldi. San Pelaio eta Orbe Kardinalaren plazetan eta Andaluziako zentroan.
Hilaren 17tik 20ra:
Mikologiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Lobiano Kulturgunean eta Orbe Kardinalaren plazan.
Hilaren 21etik 27ra:
Nagusien Nazioarteko Eguren jardunaldiak: hainbat ekitaldi.
Hilak 25:
Berto jaialdia: Uxue Alberdi, Miren Artetxe, Aner Peritz, Unai Iturriaga, Nerea Ibarzabal eta Beñat Gaztelumendi. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €
Hilak 31:
Gau beltza: Haurrentzako disko festa (17:30ean) eta Kluedo (21:30ean).

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**



MALLA
file-apaindegia
Probaleku 8. behe © 943 17 18 50

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUE col.1665 EGOITZ FORMOSO col.1675



irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



IR AZ
Odontologia
Fisioterapia

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com




Zuri egokitzen
den odontologia
La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



LEIRE MAYORA
PODLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

Euskara eroso bizitzeko

Vive el euskera cómodamente



aek
euskara praktikoa

KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA 2024/2025

MATRIKULA ZABALIK

Irailaren 30era arte / hasta el 30 de septiembre

CURSOS DE INICIO (A1) // PRECIOS ESPECIALES

POR LAS MAÑANAS: **5 DÍAS, 10 HORAS A LA SEMANA** ~~656 €~~.....**198 €**

POR LAS TARDES: **4 DÍAS, 8 HORAS A LA SEMANA** ~~536 €~~.....**156 €**

3 DÍAS, 4,5 HORAS A LA SEMANA ~~393 €~~.....**99 €**

16-18 URTE BADITUZU, PREZIO BEREZIA

C1 MAILA: ARRATSALDEZ, ASTEAN BI EGUNETAN

3 ORDU ASTEAN ~~236 €~~**24 €**

% 100era arteko dirulaguntzak / Subvenciones de hasta 100%

ERMUKO KALTXANGO AEK
Zearkale 16
607 623 961/688 746 480
kaltxango@aek.eus

MALLABIKO AEK
Intxaurti z/g
943 17 66 91
kulturetxea@mallabia.eus